

KANBO

ELORRI MENDI
LA
COLLINE DE
LA BERGERIE

2020KO
ANIMAZIOEN
EGITARAU



EZAGUTU ETA LILURATU

Elorri Mendi Kanboren gainaldean dagoen naturagune sentikorra da. Elorri Mendin, oihanak, pentzeak eta ikuspuntu zoragarriak ikus daitezke eta Elondare etxea bisita daiteke. Adituek gidatutako bisitez goza daiteke ere.

Programazio hau osasun alorreko eskakizunei erantzuteko eta denek esperientziak segurtasunez bizitzeko gisan osatu da. Zure maska, idazluma eta puskak ekarri beharko dituzu. Hona heltzean, eskuak garbitzeko gel hidroalkoholikoa erabiliko duzu, eta animazio denboran besteekin gutienez metro bateko tartea utziko duzu.

IBILALDIA NATURAN ETA ONDAREA

EKAINAK 20 LARUNBATA
UZTAILAK 15 ETA 29 ASTEAZKENAK
ABUZTUAK 12 ETA 26 ASTEAZKENAK
IRAILAK 12 LARUNBATA
14:00 - 16:00

Hemengo berezitasun ekologikoak ezagutuko dituzu: inguruneak, fauna eta flora. Gunearen historiak ere hitz eginen dizugu, antzinarotik gaur arte: urre meatzea, puntu estrategikoa edo ingeles moldeko perkea.

Distantzia: 3.5 km. Iraupena: 2 oren.
Ipar Euskal Herriko IEZirekin.

Prezio normala: 5 €/p.

Prezio apala: 3 €/p.

Denentzat – Baitezpadakoa da izena ematea

Ipar Euskal Herriko IEZI : 05.59.37.47.20

GAZTEENENTZAT

PINPIRINAK SAREAN

UZTAILAK 9 OSTEGUNA
(3-5 urte artekoak)
15:30 - 17:00



UZTAILAK 16 OSTEGUNA
(6-8 urte artekoak)
UZTAILAK 23 OSTEGUNA
(9-11 urte artekoak)
14:30 - 17:00

Ihizi arras goxo baten denboran, Elorri Mendin bizi diren pinpirinak ezagutuko dituzu. Intsektu zoragarri hauek harrapatu, behatu eta askatuko dituzu.

Ipar Euskal Herriko IEZirekin.

Prezioa: haur bakoitzeko 3 €

Baitezpadakoa da izena ematea

Ipar Euskal Herriko IEZI : 05.59.37.47.20

IBILALDIA NATURAN ETA MITOLOGIA

UZTAILAK 28 ASTEARTEA
ABUZTUAK 7 OSTIRALA
19:30 - 22:00

Naturagune sentikorra ezagutzeko ibilaldia. Tarteka, gune honetako pertsonaia mitologikoei buruzko "ipuinak" entzunen dituzu. Piknikaren denboran, ezti dastaketa antolatuko da.

Distantzia: 2 km. Iraupena: 2:30 oren.
Piknika ekar.

Departamendua eta Irisarriko Ondarearen Heziketa Zentroarekin.

Urririk – Denentzat
Baitezpadakoa da izena ematea
Kanboko Turismo Bulegoa :
05.59.29.70.25



PINPIRINEN ETA LAMINEN MENDIXKA

ABUZTUAK 5 ASTEAZKENA
14:00 - 21:00



Ibilaldi batean, gidari batek basa-pinpirinez bete lekuaren historia kontatuko dizu. Erlategi pedagogiko batek erleen bizia azalduko dizu. Arratsean, kontalari batek laminen eta euskal mitologiako izaki fantastikoen munduan murgilduko zaitu.

Ipar Euskal Herriko IEZI, Nature et Abeilles elkarte, Departamendua eta Irisarriko Ondarearen Heziketa Zentroarekin.

Urririk – Denentzat

Baitezpadakoa da izena ematea

Ipar Euskal Herriko IEZI : 05.59.37.47.20

ERLEZAINZTA ETA POLINIZAZIO IBILALDIA

ABUZTUAK 19 ASTEAZKENA
IRAILAK 26 LARUNBATA
14:00 - 17:00

Ibilaldia. Gaia: flora eta fauna polinizatzailea. Nature et Abeilles elkarteko erlezainekin topaketa eta

erlategiaren bisita.

Ezti dastaketa. Iraupena: 1:30 oren.

Ipar Euskal Herriko IEZI eta Nature et Abeilles elkartearekin.

Prezio normala: 5 €/p.

Prezio apala: 3 €/p.

Denentzat – Baitezpadakoa da izena ematea

Ipar Euskal Herriko IEZI : 05.59.37.47.20

LAPURDIKO PAISAIA TIPIKOA

URRIAK 17 LARUNBATA
14:00 - 17:00

Oihanen, ingurune irekien, zuhaitz lepatuen, onddoen eta landareen arteko nahasketa ekologikoaren ezagutzea. Laborari batekin topaketa. Tokiko ekoizpenen dastaketa.

Iraupena: 1:30 oren – Piknika ekar.

Ipar Euskal Herriko IEZirekin.

Prezio normala: 5 €/p.

Prezio apala: 3 €/p.

Denentzat – Baitezpadakoa da izena ematea

Ipar Euskal Herriko IEZI : 05.59.37.47.20

LANDARE HESIEN OSATZEA

AZAROAK 6 OSTIRALA
08:30 - 17:00

Tailer parte-hartzailea. Frantziako kultura-ondare immaterial gisa ekarri jakintza baten ikastea. Landare hesi biziak eta produktiboak sortzen ikasiko duzu. Teknika hau landare biziak elkar korapilatzean datza. Landare hesiak bioaniztasuna sustatzen duten babeslekuak dira. Gure paisaia eta baratzeetan burdin eta hari hesiak ederki ordezkatu ditzakete.

Ipar Euskal Herriko IEZI eta Jaime JIMENEZ ingurumen teknikariarekin.

Prezio normala: 5 €/p.

Prezio apala: 3 €/p.

Helduentzat – Baitezpadakoa da izena ematea

Ipar Euskal Herriko IEZI : 05.59.37.47.20



DÉCOUVRIR ET S'ÉMERVEILLER

A l'occasion de ce programme d'animations, venez découvrir le site Elorri Mendi et sa maison Elondare. Du haut de la colline vous contemplez les paysages des provinces basques du Labourd et de la Basse Navarre. Au gré d'une balade guidée, les spécialistes dévoilent les trésors de la biodiversité et parlent de l'histoire du site.



www.le64.fr



PAYS BASQUE



PLUS NATURE,
PLUS VIVANT
ENVIRONNEMENT